



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Derioko Udala

Derioko erabilera publikoko espazio pribatuak berrurbanizatzeko dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren behin betiko onespena.

Udalbatzak 2024ko urriaren 29ko saioan Derioko erabilera publikoko espazio pribatuak berrurbanizatzeko dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza hasiera batean onesteko hartutako erabakia jendaurrean jarri zen 30 egunez, iragarkia 2024ko azaroaren 6an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, nahi zuenak azter zezan eta egoki zeritzon erreklamazioak eta iradokizunak aurkezitzan. Bada, aipatutako jendaurrean jartzeko epea eta aurretiazko entzunaldirako epea amaitu dira, eta ez da erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu. Horrenbestez, erabaki hori behin betiko onetsi dela hartuko da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Orduan, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udal-webgunean (www.derio.eus) eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da. Honako hau dio hitzez hitz.

Derion, 2024ko abenduaren 20an.—Behin Behineko Idazkaria

**DERIOKO ERABILERA PUBLIKOKO ESPAZIO PRIBATUAK
BERRURBANIZATZEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA****HITZAURREA**

Derioko udalerriko hirigintzako araudian aurreikusitakoaren arabera, zenbait zona kalifikatu dira lur gaineko erabilera publikoko jabetza pribatuko hiri-lurzoru gisa.

Jabetza pribatuko eta erabilera publikoko espazio horietako asko hondatuta daude, eta, hortaz, udalak horiek konpontzea sustatu behar du, bai eta berritzea ere, erabilera publikoa bermatze aldera.

Ordenantzan, aipatu den bezala, erabilera publikoko zona pribatuak hartu dira ardatz gisa. Horrek esan nahi du, alde batetik, udalak egingo dituela erabiltzeko azalera (zola-durak, berdeguneak eta abar) eta erabilera publikokoak izan daitezkeen elementuak (paperontziak, bankuak eta abar, kasuan kasu) mantentzeko eta zaintzeko lanak. Hau da, benetako erabilera publikokoa den erabileragatik higitu daitezkeen elementuez eta lur gaineko azalerez baino ez da arduratuko. Eta beste alde batetik, lurzoruaren jabeari dagokio lur gaineko azalera publikoaren euskarri diren elementuak modu egokian mantentzea eta kontserbatzea eta, sarritan, eraikuntza-elementuak dira eta lur gaineko azalaren azpitik dauden espazio pribatu horiek estaltzekoak dira (forjaketak, iragazgaizteak, isolamenduak, naturaguneak eta abar). Horrenbestez, bereizi egin behar dira zona horrek izan dezakeen erabilerari eta jabetza pribatuari zuzenean lotutako eraikuntza-multzoa eta gainazal horren erabilera publikoak eragiten duen higadurari lotutako elementuak. Desberdintze hori Arartekoaren zenbait epai eta txostenetan dago jasota. Bestalde, adierazi beharra dago espazio horietako askoren egoera eta hondatzea berezko zahartzeari eta emandako erabilerari lotuta dagoela; alabaina, hala ere, erabilera publikoko lur gaineko azaleko akatsak, askotan, elementu pribatuek dituzten egoera edo patologiangatik gertatzen dira.

Derioko Udalak, aurrekoa kontuan izanda eta zona horietako urbanizatzeko-maila udalerriko gainerakoekin bat etortzea komeni dela kontuan izanda, bai eta udalak eta jabeak horretarako elkarrekin lan egin behar dutela ere, horien egoera egokia bultzatze aldera, dirulaguntzen araudi bat prestatu du —jarraian zehaztu dira artikulua— erabilera publikoko lurzati pribatuak hobetzeko jarduketara pribatuak sustatzeko.

Era berean, esperientzia ikusita, honako hau egitea komeni dela uste da: berariaz jaso ez diren dirulaguntzetarako funts publikoak kudeatzeko erregimenean zenbait xedapen gehitu behar dira, emateak gailendu behar duen interes orokorreko xedarekin bateraezina den asmo batekin erabiltzea ekiditeko.

Prestatu diren arauak dagokienez, araudiaren xedea sakon arautzen duten hemezortzi artikulutan garatu dira. Xedea, hain zuzen ere, alor horretan ekimen pribatua sustatzea baino ez da. Era horretan, honako hauek zehaztu dira hemen: ezarri da nor izan daitezkeen ordenantza honetan jasotako dirulaguntzen onuraduna; jarduera %100ean diruz laguntzeko aukera jaso da, ekimen pribatuak erabilera publikoari eragin diezaioketen elementu pribatikoak konpontzearekiko interesa izan dezan; dirulaguntzak eskuratzeko beharrezkoa den dokumentazioa eta bete beharreko betekizunak ezarri dira, emateko betekizun material guztiak eta formazko betekizun guztiak betetzen direla bermatzeko; interesdunek betebeharrak ez betetzearen ondorioak arautu dira, ematea edo ez ematea ekarriko duena; emateko modua zehaztu da; aurrekontu-baliabiderik ez izatearen kasua eta eskaeren lehentasuna arautu dira; eskabideak aurkezteko lekua eta epea eta horien izapideak jaso dira; jasotako zenbatekoak itzuli beharreko kasuak arautu dira; erantzukizunen erregimena eta aplikatu beharreko legeria ezarri dira, eta garapenari eta indarrean sartzei buruzko azken xedapen bat gehitu da.

**DERIOKO ERABILERA PUBLIKOKO ESPAZIO PRIBATUAK
BERRURBANIZATZEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA****1. artikulua. — Xedea**

1. Ordenantza honen xedea da jarduketa pribatuak sustatzea lur gaineko erabilera publikoko eta jabari pribatuko hiri-lurzoru gisa sailkatutako zonetan. Jarduketa pribatu horien helburuak izango dira erabilera publikoari eragiten dieten eraikuntza-elementuak konpontzea, non, besteak beste, lehenengo horien ondorioz kaltetu diren eraikuntza-elementu pribatuak barne hartuko baitira.

2. Ondorio horietarako, dirulaguntzat hartuko da ordenantza honetan zonak eta elementuak konpontzeko aipatzen den jarduera bultzatzeko pertsona fisikoen eta juridikoen aldeko doako ondare-eskudantzia espezifikoa.

3. Ez dira dirulaguntzaren xede izango irabaziak eta kargak ekitatez banatzea xede duten egikaritze-unitateetan dauden lurzatiak, ezta ere hiri-lurzoru finkatugabeen daudenak.

2. artikulua. — Udalaren betebeharrak erabilera publikoko espazio pribatuetan

1. Erabilera publikoko lur gaineko espazio pribatuak mantentzeari dagokionez, Derioko Udalak honako hauek hartuko ditu bere gain:

- Hiri-garbiketa, zakarrontziak hustea eta biltzea barne.
- Argiteria kontserbatzea, hau da, elektrizitate-horniduraren eta lanparak zein luminariak berriz jartzearen kostua ordaintzea. Beren-beregi salbuetsiko dira jabeek instalatzen dituzten eta beharrezkoak ez diren edo gehigarriak diren argi-puntuak.
- Hiri-altzarien elementuak mantentzea, kontserbatzea eta, hala badagokio, ordezkatzera ere bai.
- Lorategi-espazio libreak mantentzea eta kontserbatzea, zuhaitzak barne.
- Zoladurak kontserbatzea, hau da, garbitzea eta baldez garbitzea. Horrez gain, bizitza erabilgarriaren amaieran edo erabilera publikoagatik hondatzen denean baldosak, lauzak edo azken akaberaren materiala ordezkatzera (erabilera publikoari egotz dakiokkeen higadura pairatzen duelako). Derioko Udalak ez du, inolaz ere, bere gain hartuko honako hauekin zerikusia duten elementuen kostua: maldak egitea, isolamendua, iragazgaiztea, azpi-oinarriak eta zabaldegiko materiala, edo zoladuraren eta beste eraikin batzuen euskarri diren egiturazko elementuak; izan ere, kasu horietan higiezinaren jabeak arduratuko dira, edonola ere, horiek birjartzeko edo konpontzeko kostu osoa ordaintzeaz.
- Jabea edo jabeak arduratuko dira artikulua honetan berariaz jaso ez den beste edozein mantentze- edo kontserbazio-kostu ordaintzeaz.

2. Derioko Udalak egoki diren prozedurak eskatu ahal izango ditu ondasun horien erabilera publikoari uko egiteko. Orduan, eraikuntzarik gabeko espaziotzat hartuko dira, jabari pribatukoak eta erabilera pribatibokoak.

3. artikulua. — Finantza-baliabideak

Udal-aurrekontuan urtero jasotzen diren finantza-baliabideak aplikatuko zaizkie ordenantza honetan xedatutako dirulaguntzei.

Urteko bakoitzari dagozkion aurrekontu-baliabideak agortu izanagatik gauzatu ezin diren eskaerak indarrean jarraituko dute, betiere, ordenantza honetan jasotako betekizunak betetzen direla egiaztatzen bada, eta xede horretarako gaitutako kredituen kargura ebatzi ahal izango dira hurrengo aurrekontu-ekitaldietan.

4. artikulua. — Udal-gastua

Udal-organo arduradunak, aurrekontuan erabilgarri dauden kredituen barruan gastua baimentzeko kontabilitate-dokumentua bildu ondoren, eta kontu-hartzailearen txostenaren ostean, deialdiaren proposamena helaraziko dio onesteko eskumena duen organoari, onetsi dezan. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.



Deialdian nahitaez jasoko da eduki hau:

- a) Ordenantza hau onesten duen udal-erabakia adieraztea eta, hala badagokio, horrelakorik balego, Derioko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra, argitaratu den Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren egunekoa eta zenbakikoa.
- b) Dirulaguntzak egotzi diren aurrekontu-kreditua, erabilgarri dauden kredituen barruan deitutako dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa edo, bestela, dirulaguntzen zenbateko zenbatetsia.
- c) Dirulaguntza ematearen xedea, baldintzak eta helburua.
- d) Norgehiagoka erregimenean ematen direla adieraztea.
- e) Dirulaguntza eskatzeko betekizunak eta egiaztatzeko modua.
- f) Prozedura bideratzeko eta ebazteko eskumena duten organoak adieraztea.
- g) Ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen diola adieraztea.
- h) Eskaerak baloratzeko irizpideak, moduak eta lehentasunak.
- i) Jakinarazteko edo argitaratzeko bidea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 9/2015 Legearen 41. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

5. artikulua. — Dirulaguntzen Onuradunak

1. Dirulaguntzen onuradunak izango dira 1. artikuluko lehenengo puntuan adierazi diren zonak konpontzeko jarduera egingo duten ondare-esleipenen hartzaile diren pertsona fisikoak edo juridikoak, betiere, Dirulaguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2013 Legearen 13. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, bai eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50. artikuluan xedatutakoarekin ere.

2. Nola nahi ere, jabeen erkidegoek obrak egitea erabaki behar izan dute erabaki irmoaren bitartez, Jabetza Horizontalaren Legeak edo ordezkatzan duen beste arau bategi ondorio horietarako xedatutakoari jarraikiz, eta ordezkaria izendatu behar izan dute.

6. artikulua. — Gehieneko zenbatekoa

Dirulaguntzaren zenbatekoa, gehienez ere, ordenantza honetako 1. artikuluan ezarritako zonak eta elementuak konpontzeko gastuen %100 izan ahalko da.

7. artikulua. — Eskaera

1. 1. Dirulaguntza eskuratzeko ezinbesteko betekizun izango da eskaera aurkezten den unean jardungo den lurzattia hiri-lurzati gisa sailkatuta egotea indarreko hirigintzako udal-araudian, bai eta proiektua plangintza-aurreikuspenekin bateragarria izatea ere.

Eskaerarekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) Jardungo den lurzoruaren titulartasuna egiaztatzeko titulua, Jabetza Erregistroan behar den moduan inskribatuta.
- b) Proiektu teknikoa edo memoria, baldin eta beharrezkoak badira eta hala ezarri bada indarreko legerian eta araudian. Eskumena duen teknikari batek idatzia egon behar du eta gauzatuko diren obrak aski deskribatuta egon beharko dira. Horrez gain, jarduketaren aurrekontu xehatua eta dokumentazio grafikoa. Edonola ere, kontu-hartzailearen aurrekontu osoa aurkeztu beharko da eta nahiko zehatza, gauzatuko diren jarduketak ulertu ahal izateko.
- c) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzeko dokumentuak eta, hala badagokio, haren izenean jarduten duen ordezkariarena.
- d) Jabeen erkidegoek obrak egiteko erabakitze erabaki irmoa eta Derioko Udalaren aurrean dirulaguntzaren espediente kudeatzeko ordezkaria izendatzea.
- e) Eskatzailearen identifikazio fiskalaren dokumentua.
- f) Dirulaguntzak sartzeko kontua eskatzailearen izenean dagoela egiaztatzeko ziurtagiria.



- g) Honako hauei dagozkien ordainsarien aurrekontua: proiektua edo memoria idaztea eta obren zuzendaritza, baldin eta horrelakorik idatzi behar izanez gero.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, urteko deialdian adierazitakoez gain, beste betekizun gehigarri batzuk ezarri ahal izango dira urteko deialdian.

2. Eskatzen diren dokumentuen ale originala edo kopia ziurtatua aurkeztu ahal izango dira, eta itzultzeko eskatu ahal izango da, organo kudeatzaileak aurkeztutako dokumentuak horien fotokopia edo kopia sinpleekin erkatu eta gero.

3. Dirulaguntzaren eskaerarekin batera, eta ahal izanez gero, erabilera publikoko lurzorua Derioko Udalarri lagatzea proposatu daiteke, dirulaguntzaren xedeari lotutako jarduketak egiten diren lurzoruari dagokionez.

Hori egiten bada, aukerakoa izango da lagapena onartzea, eta ez onartzeak ez du inolako ondorioz izango dirulaguntza emateko edo ez emateko orduan.

4. Eskaerak aurkeztearekin batera, ordenantza honetan jasotako baldintzak, betekizunak eta betebeharrak inolako baldintzarik gabe onartzen direla joko da.

8. artikulua. — Eskaeren lehentasuna

Ordenantza honetan ezarritako dirulaguntzak emateko orduan, eskaeren sarrera-hurrenkerara hartuko da aintzat.

Eskaerak, halaber, dagoeneko baimendu eta egin diren 1. artikuluan jasotako obrei dagokienez egin ahal izango dira.

9. artikulua. — Eskaerak aurkezteko lekua

Eskaerak, bete eta gero, eta beharrezkoa den dokumentazioarekin batera, administrazio-prozedurari buruzko legeriari jarraikiz aurkezteko gaitu diren edozein tokietako batean aurkeztu ahal izango dira.

10. artikulua. — Izapideak

1. Udaleko Zerbitzu Teknikoek egingo dituzte aurkezten diren eskaeren inguruko txostenak, eta horien bitartez egiaztatuko dute obrek proiektuarekin eta Derioko hirigintzako araudiarekin bat egiten duten, eta udalean eskumena duen organoari proposatuko diote baldintza horiek betetzen ez dituzten eskaerak ez onartzea. Ordenantza honetan xedatutakoa garatzen duten urteko deialdietan, Balorazio Batzordearen osaera zehatza jasoko da, eta udaleko Zerbitzu Teknikoetako kideek osatu beharko dute.

2. Dirulaguntzaren eskaerak izapidetzeko orduan, ordenantza honetako arau espezifikorik izan ezean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan xedatutakoa aplikatuko da.

3. Ebazpena, gehienez ere, hiru hileko epean eman beharko da, ebazpena emateko eskumena duen organoaren erregistroetako batean eskaera aurkeztu den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Eskatutako dirulaguntza goian aipatutako epean ebazten ez bada, onartu ez dela joko da.

11. artikulua. — Baloratzeko eta emateko irizpideak

Helburu horrekin argitaratzen den deialdian ezarriko dira balorazio-irizpideak.

Horrelakorik aurreikusten ez den kasuetarako, udaleko Zerbitzu Teknikoek honako irizpide hauei jarraikiz baloratuko dituzte eskaerak:

- konpondu beharreko azalera (m²);
- urbanizazioaren antzinatasuna eta narriaduraren egoera;
- ukituta dauden herritarren kopurua;
- konponduko den espazioaren behealdean dauden aparkalekuak konpontzea eta egokitzea dakarten jarduketak, aparkaleku horiek indarreko araudira egokitzea helburu dutenak;



- konpontzeko proposamenaren kalitate arkitektonikoa;
- zonatik ibili ohi diren pertsonen kopurua.

Aipatutako balorazio horretatik, onuradunen kopurua aterako da, zeina txikituz doan hurrenkeran antolatuko baita.

2. Dirulaguntzak, hain zuzen, aurrekontuan dirua egotearen arabera egongo dira baldintzatuta, eta alkateak emango ditu, zeinak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetu ahal izango baitio zeregina.

3. Dirulaguntza emateko prozedurari amaiera ematen dion ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ahal izango da, ebazpena eman eta hurrengo hogeita hamar egunetan, hargatik eragotzi gabe interesdunei jakinaraztea. Argitaratzea aukerako izango da honako hauek bakarrik zehaztea: onuraduna, zenbatekoa eta emandako dirulaguntzaren xedea.

4. Emateko ebazpena berrikusteko aukera egongo da, honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada, baina ezingo da, inolaz ere, xedea edo helburua aldatu:

- Dirulaguntza emateko aintzat hartu diren betekizun subjektiboak eta objektiboak edo inguruabarrak aldatzea.
- Onuradunak laguntzak edo dirulaguntzak jaso izana autonomia erkidegoko administrazio publikoko beste organo batzuegatik edo beste administrazio batzuegatik helburu eta xede bera gauzatzeko.

5. Honako bi baldintza hauek bete beharko dira Derioko Udalak dirulaguntzak emateko:

- Ezin izango dira aurrekaritzat hartu.
- Ezin izango da igotzeko edo berrikusteko eskatu, salbu eta udalak berariaz hala erabakitzen badu.

12. artikulua.— *Dirulaguntza justifikatzea*

1. Dirulaguntzaren deialdian zehaztuko da onuradunek Derioko Udalarari obren zenbateko osoa aurkezteko izango duten epea, edo, bestela, 60 egunekoa izango da. Horretarako, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Proiektuaren azken memoria xehatua, non obra amaierako ziurtagiria jasoko baita, proiektuak hala behar izanez gero eta indarreko legerian eta araudian hala ezarrita egonez gero. Obra-zuzendaritzako lanak egin dituen eta eskumena duen teknikariak sinatu beharko du eta dirulaguntzarekin finantzatu diren jarduerak eta kostua deskribatu beharko ditu, bai eta funts propioekin edo beste dirulaguntza batzuekin finantzatu direnak ere. Edonola ere, gauzatutako obren azken likidazio ekonomikoa aurkeztu beharko da.
- Egindako gastu guztiak eta dagozkien fakturak dituen likidazioa, kontzeptuen arabera ordenatuta.
- Hartzailearen ziurtagiria. Bertan ziurtatu beharko da dirulaguntza emateko helburua bete dela, betiere, aurkeztutako proiektuarekin eta aurrekontuarekin bat etorritik.
- Proiektua edo memoria idazteko kostuaren ordainsarien fakturak, bai eta obra-zuzendaritzarenak ere, beharrezkoa izan bada.

Deialdiaren arabera, baliteke onuradunak beste dokumentu batzuk aurkeztu behar izatea.

13. artikulua.— *Dirulaguntza ordaintzea*

1. Derioko Udalak, aurreko artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, diruz lagunduko du obren kostua, bai eta obra-proiektua idazteko ordainsarien kostua eta obra-zuzendaritzarena ere, horrelakorik behar izanez gero. Ordainketa banku-transferentziaren bidez egingo da eskatzaileak aukeratzen duen kontuan.



2. Dirulaguntza ordaindu baino lehen, honako hauek justifikatu beharko ditu onuradunak: dirulaguntza emateko arrazoi den jarduera, proiektua edo helburua betetzen duela edo dagokion jarrera hartzen duela, betiere, ordenantza honen aurreko artikuluan eta dirulaguntza arautzen duen deialdian edo hitzarmenean xedatutako baldintzetan. Egiaztatzeko egokiak diren jarduketak egingo dira indarreko legeriari jarraikiz.

Dirulaguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da baldin eta justifikazio egokirik egiten ez bada edo Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluan xedatutako arazoirenen bat egiten bada.

3. Obrak dagokion lizentzian ezarritako epearen barruan amaitzen direnean ordainduko da dirulaguntza.

4. Dagokion deialdian ezarri ahal izango da dirulaguntzaren ehuneko bat aurreratzeko aukera dagoela, eta eskaera gitean emateko aukera.

14. artikulua.— Obrak definitzen dituen dokumentazioa edo proiektua

1. Proiektugileek, kasuan kasu, eta eskatzaileek udaleko Zerbitzu Teknikoekin etengabeko harreman zuzena izango dute egikaritze-proiektua prestatzen den bitartean edo egikaritzeko diren jarduketak definitzen diren bitartean, zehaztapenak udal-premietara egokitzeko konpondu behar den espazio publikoaren mantentze-lanei, apaintzeko lanei eta diseinuari dagokienez.

2. Aurreko puntuan adierazitako dokumentazioa idazten amaitzean, udalak onetsi beharko du eta dagokion obra-lizentzia izapidetu.

15. artikulua.— Onuradunek betebeharrak betetzea eta obrak egikaritzea

1. Udalak aurreko artikuluan aipatutako dokumentazioa onetsi ondoren eta dagokion lizentziak lortu ondoren, onuradunek, sustatzaileak diren aldetik, obrak egikaritzeko eta kontratatzeko konpromisoa hartzen dute.

2. Obrak egikaritzeko, beharrezkoa izango da sustatzaileek obren zuzendaritza fakultatiboa kontratatzea.

3. Udala guztiz ados egon beharko da obren egikaritze-prozesuarekin eta emaitzarekin; hori dela eta, egikaritu baino lehen, eta baita egikaritu bitartean ere, obra horiek zuzendu edo aldatu ahal izango dira udalaren irizpideen arabera, betiere, kostua jabearen kargura igotzea ez badakar.

4. Nolanahi ere, obra-motaren eta obraren irismenaren arabera, udalak, sustatzailearekin alde aurretik adostu ondoren eta jarduketa arintzeko asmoz, bere gain hartu ahal izango du obra bultzatzea eta zuzentzea, baina horrek ez du esan nahi kostuak bere gain hartuko dituenik.

16. artikulua.— Udal-jarduketak obrak egikaritzen diren bitartean

1. Sustatzaileari edo, kasuan kasu, eskatzaileak izendatutako langile fakultatiboari dagokio ordenantza honetan hizpide diren obrak ikuskatzea, baina, hala ere, obrak une oro egon daitezke eskumena duten udaleko Zerbitzu Teknikoek egiten duten obren garapenaren kontrolaren, fiskalizazio teknikoaren eta jarraibideen mende, aurreko artikuluko 4. zenbakian adierazitakoa gorabehera.

2. Udalaren aurreko jarduketak alde batera utzita, sustatzailea edo, hala badagokio, obraren proiektugile-zuzendaria eta obra gauzatzeaz arduratuko den kontratista izango dira garatzen dituzten lanen eta egindako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule bakarrak, bai eta kontratua gauzatzean egindako omisioek, akatsek, metodo desegokiak edo ondorio okerrekin udalari edo hirugarrenei eragiten dizkieten ondorioen erantzule bakarrak ere.

3. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango proiektua idazten duten pertsonen eta obra-zuzendaritzari dagokienez (lanekoa, ekonomikoa...), ezta ere egikaritzeaz arduratuko den kontratistari dagokionez ere.

Obren sustatzaileak, obrak amaitu ondoren, lanak amaitu direla jakinaraziko dio udalari. Teknikariek egiaztatuko dute lanak onetsitako proiektuari, teknikariek egin ditzaketen



jarraibideei eta udalak baimendu ditzakeen aldaketei jarraikiz egin direla. Hain zuzen ere, «obrak hartzeko aktaren» bitartez utziko dute jasota, erabilera publikoaren zatiari dagokionez.

17. artikulua.— *Erantzukizunen erregimena*

1. Ordenantza honetan hizpide diren dirulaguntzen hartzaileak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean ezarritako erantzukizun-erregimenaren mende egongo dira.

2. Dirulaguntzak emateko ezarri diren eskakizunak betetzen ez badira, dirulaguntza baliogabetuko da eta jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, legez dagozkion interesekin batera.

18. artikulua.— *Aplikatzekoa den legeria*

Ordenantza honetan xedatu ez denari dagokionez, Derioko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra aplikatu beharko da, bai eta laguntza eta dirulaguntza publikoei buruzko foru-araudia eta erkidegoko eta estatuko araudia.

AZKEN XEDAPENAK

1. Alkateari ematen zaizkio ordenantza honetan xedatutakoa garatzeko eta egikaritzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko ahalmena.

2. Ordenantza hau indarren sartuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egunean.

AURKABIDEAK

Ebazpen honek amaiera ematen dion administrazio bideari, eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzitarako Aretoan, bi hilabeteko apean, berau jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautu duen uztailaren 13ko 29/1998 10.1 b) era 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Hori gorabehera, egoki deritzozun beste edozein aukabide erabil dezakezu, hala nahi izanez gero.